

EAEEn, 700 landun gutxiago egon da eta langabezia-tasa %3,5 izan da 2008. urteko bigarren hiruhilekoan

Azken urtean 18.400 enplegu garbi sortu dira eta langabezia-tasa hamarren bat igo da

Eustaten datuen arabera, 2008ko bigarren hiruhilekoan Euskal AEko lan-merkatuan 971.000 landun inguru izan da; hau da, aurreko hiruhilekoaren aldean 700 landun gutxiago izan da (-%0,1). Bestalde, langabezia-tasa %3,5 izan da, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gehiagokoa.

Landunen eta langabetuen bilakaera kontuan hartuta, aktibotasun-tasa ez da aldatu 2008ko bigarren hiruhileko honetan: %55,1 izan da.

Generoaren arabera, okupazioak gizonezkoen kopuruan izan du beherakada handiena: aurreko hiruhilekoan baino gizonezko 3.900 landun gutxiago egon da, aitzitik, 3.200 emakume gehiago egon da lanean. Lurraldeka, Araban eta Gipuzkoan landunen kopurua gutxitu egin da, 600 eta 400 enplegu garbi gutxiago izan baitituzte hurrenez hurren. Aitzitik, Bizkaiak 200 enplegu garbi gehiago izan ditu.

Zerbitzuen sektoreak irabazi du enplegu gehiago, 9.000 enplegu garbitik gora sortu baitu

Zerbitzuen sektoreak 9.400 enplegu garbi sortu ditu 2008ko bigarren hiruhilekoan eta, horrela, ia konpentsatu egin dira industriak (6.900 enplegu garbi gutxiago), eraikuntzak (2.800 gutxiago) eta nekazaritzak (300 gutxiago) izandako enplegu galerak.


Okupazio-tasa (hau da, 16 eta 64 urte arteko pertsona-kopuru osoaren aldean okupatuta dauden pertsonen ehunekoa) %67,8 izan da, duela hiru hilabeteko bera alegia. Gizonezkoen kasuan tasa hori %76,3 izan da eta gizonezkoen kasuan %59,1.

Lurralde historikoen arabera Gipuzkoak izan du okupazio-tasarik handiena (%70,3), aurreko hiruhilekoko kopuru bera mantendu baitu; gero Arabak du handiena (%68,4), hamarren bat gutxiagorekin. Bestalde, Bizkaiak dauka tasarik txikiena (%66,2), aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiagorekin.

Soldatapekoen kopurua gutxitu egin da eta autonomoena gehitu

2008ko bigarren hiruhilekoan duela hiru hilabete baino 802.300, 5.600 soldatapeko gutxiago egon da guztira; autonomoak, aldiz, ia 5.000 gehiago izan dira. Lan-kontratu mugagabeko 700 soldatapeko gutxiago izan da, horrela guztira 618.400 izan dira; baina aldi baterako kontratua duten soldatapekoak (kontraturik ez dutenak barne) 5.000 gutxiago izan dira eta, beraz, guztira 183.800 izan dira.

Biztanleria okupatuaren joera 1985etik. Euskal Autonomia Erkidegoa. (Milakotan)



Iturria: Eustat

Zenbatespenen arabera, 2008ko bigarren hiruhilekoan gutxi gorabehera Euskal Autonomia Erkidegoko 827.900 etxetan bizi diren pertsonen herenak ez dira aktiboak. Hamar etxetatik ia zazpitan etxeko pertsona denek dute lana, datu horren arabera aurreko hiruhilekoan baino 5.600 familia gehiagotan gertatzen da hori; gainera, pertsona aktibo denak langabezian dituzten 10.800 etxe izan dira (guztirakoaren %1,3), hau da, aurreko hiruhilekoan baino 1.000 etxe gutxiago.

Euskal AEko langabezia-tasa %3,5 izan da

Urteko bigarren hiruhileko honetan, langabetu kopurua 35.500 dela uste da. Lan bila ari diren, lana bilatzeko kudeaketa aktiboak egiten dituzten eta lanerako prest dauden pertsonak jotzen dira langabetutzat. Gizonezkoen artean 19.800 langabetu egon dira, hau da, 3.400 gehiago; baina emakumezkoen artean bigarren hiruhileko honetan 1.500 langabetu gutxiago egon da (guztira 15.700).

2008ko bigarren hiruhilekoan langabezia-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean bi hamarren gehitu da; %3,5 izan da. Gizonezkoen langabezia-tasa %3,5era igo da (%0,6 gehiago) eta emakumezkoena lau hamarren gutxitu da (%3,6ra heldu da). Gazteen langabezia-tasa da oraindik altuena (%9,9); aldi honetan %1,1 gehitu da eta, ondorioz, 16-24 urte bitarteko 6.300 gazte aktibo langabezian geratu dira.

Lurralde historikoen arabera, Bizkaian 3.600 langabetu gehiago egon da; datu horiekin bat etorritik, guztira 22.700 langabetu egon da eta lurraldeko langabezia-tasa %4,3ra heldu da, hau da, tasarik altuena lortu da. Aitzitik, Gipuzkoan 9.700 langabetu izan direnez langabezia-tasa %2,9ra jaitsi da, 1.700 pertsona gutxiago egon delako egoera horretan. Araban 3.000 langabetu egon dira; tasarik txikiena lurralde honek izan du (%2).

Euskal AEko langabezia-tasa, 2008ko bigarren hiruhilekoan, euroaren eremuko herrialdeetako baino %3,7 txikiagoa izan da. EUROSTATen arabera (Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa), 2008ko maiatzean, eremu hartan, langabezia-tasa %7,2 izan da. Halaber, Europar Batasuneko tasa %6,8 izan da, 2008. urtean Batasuna osatzen duten 27 herrialdeak kontuan izanik.

Azken urtean biztanle okupatuak kopurua %1,9 gehitu da; hiru lurralde historikoetan gehitu da kopuru hori

Azken hamabi hileetan biztanleria okupatuak gora egin du; 18.400 pertsona gehiago dira, hau da, %1,9 gehiago. Gehikuntza hori hiru lurraldeetan gertatu da: Bizkaian 14.600 enplegu garbi sortu dira, Gipuzkoan 2.400 eta Araban 1.300. Sektoreka, zerbitzuen sektorea izan da batez ere enplegu gehien sortu duena: 16.500 enplegu gehiago sortu du; haren ostean eraikuntza sektoreak 2.700 enplegu garbi gehiago izan du eta, azkenik, lehen sektoreak 200 landun gehiago izan du. Industriak azken urtean 1.100 enplegu galdu ditu.

Azken hamabi hileetan emakumezkoen okupazio-tasa %2,9 gehitu da eta gizonezkoena bi hamarren. Urte batetik besterako datuak alderatuta, Bizkaiko okupazio-tasa %2,3 gehitu da; era berean, Gipuzkoakoa zortzi hamarren gehitu da eta Arabakoa hiru hamarren.

Azken urtean, aldi baterako eta kontraturik gabeko 1.900 soldatapeko gutxiago izan da eta lan-kontratu mugagabea duten 21.900 gehiago egon da. Horrenbestez, azpimarratzekoa da soldatapeko finkoen ehunekoa pixkanaka gehitu egin dela; izan ere, 2008ko bigarren hiruhileko honetan soldatapeko horiek guztirako %77,1 izan dira eta aurreko urtean %76,3 ziren.

Euskal AEn, langabezia-tasa hamarren bat gehitu da azken urtean

Azken urteko langabezia-tasa hamarren bat gehitu da (%3,4tik %3,5era); horrela, Euskal AEn, 2007ko uztailetik 2008ko ekainera bitartean 1.600 pertsona gehiago dago langabezian. Lurraldeka, Gipuzkoan langabezia-tasa 0,4 gehitu da; Araban 3 hamarren gutxitu da, eta Bizkaian azken hamabi hileetan ez da ezer aldatu tasa hori.

BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTA (BJA)

	2008eko 2. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoaren aldean		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko beraren aldean	
	Milakoak	%	Milakoak	p.p.*	Milakoak	p.p.*
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.826,0		+2,2		+0,6	
AKTIBOAK/ IHARDUERA TASA	1006,3	55,1	+1,2	-0,0	+20,0	+1,1
Gizonezkoak	572,7	64,5	-0,5	-0,1	-0,1	-0,1
Emakumezkoak	433,5	46,2	+1,6	+0,1	+20,0	+2,2
BIZTANLERIA LANDUNA/ ENPLEGU-TASA	970,8	67,8	-0,7	+0,0	+18,4	+1,5
Gizonezkoak	552,9	76,3	-3,9	-0,5	-0,2	+0,2
Emakumezkoak	417,9	59,1	+3,2	+0,5	+18,6	+2,9
Araba	143,8	68,4	-0,6	-0,1	+1,3	+0,3
Bizkaia	505,6	66,2	+0,2	+0,1	+14,6	+2,3
Gipuzkoa	321,3	70,3	-0,4	+0,0	+2,4	+0,8
Nekazaritza	12,1		-0,3		+0,2	
Industria	243,8		-6,9		-1,1	
Eraikuntza	83,4		-2,8		+2,7	
Zerbitzuak	631,5		+9,4		+16,5	
Soldatakoak	802,3		-5,6		+20,2	
- Zehaztugabea-finkoa	618,4		-0,7		+21,9	
- Aldi baterakoa, kontratu gabeak eta be	183,8		-5,0		-1,9	
Soldatarik gabekoak	168,5		+4,9		-1,8	
LANGABEAK/ LANGABEZI-TASAK	35,5	3,5	+1,9	+0,2	+1,6	+0,1
Gizonezkoak	19,8	3,5	+3,4	+0,6	+0,1	+0,0
Emakumezkoak	15,7	3,6	-1,5	-0,4	+1,5	+0,2
16 - 24	6,3	9,9	+0,7	+1,1	+2,2	+2,9
25 - 44	21,8	3,8	+0,6	+0,1	-1,9	-0,3
45 eta gehiago	7,4	2,0	+0,6	+0,2	+1,3	+0,3
Araba	3,0	2,0	-0,1	-0,1	-0,4	-0,3
Bizkaia	22,7	4,3	+3,6	+0,7	+0,6	-0,0
Gipuzkoa	9,7	2,9	-1,7	-0,5	+1,3	+0,4
Lehen enplegu bila	3,1	8,7	-0,5		-0,3	
EZ-AKTIBOAK						
EZ-AKTIBOTASUN TASA	819,7	44,9	+1,0	+0,0	-19,4	-1,1
ETXEBIZITZAK	827,9		+28,0		+29,9	
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	563,2	68,0	+8,0		+17,1	
- Guztiak okupatuak	531,5	64,2	+5,6		+14,6	
- Guztiak langabeak	10,8	1,3	-1,0		+0,3	
Aktiborik gabeko etxebizitzak	264,7	32,0	+20,0		+12,8	

*p.p. = Aldea, ehunekotan. Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: M^aJosé Santamaría Gallardo

Tel.: +34-945-01 75 33 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/spanish/indice.asp